

DONA DONA KATONA

Hamabostean behin, ostiral iluntzean Basauriko Dorre Arizera hurbiltzen denak kultur etxe batean ez ohikoak diren algarak entzungo ditu. Bertoko gela handi bat kanta eta jolasen magia plaza bihurtzen da. Bai haurrak eta bai gurasoak zapatak kendu eta bi orduz olgatzeko prest daude. *Elkarrekin jolastuz* tailerraren parte hartzaileak dira.

Sagarrak Talde Ekologistak ihaz antolatu zituen Hezkuntza Topaketen barruan jolasteko espazioen beharraz mintzatu zen. Garbiñek, tailerreko ama batek dioen bezala, *“plazetako jolasak galtzen ari zirela ikusten genuen, guk txikitan jolasten genituen jolasak berpizteko beharra sentitzen genuen”*.

Beharra ikusita, Josune Muñoz literatura irakaslearekin harremanetan jarri ziren literatura eta jolasak batera lantzeko proposatuz. *“Hasiera batetik, oso ideia ona iruditu zitzaidan. Nik, ama izanda, argi izan dut beti jolasteko espazioen beharra zegoela. Tailerrean gurasoak eta semealabak batera parte hartzea proposatu nien, eta horrela, hasi ginen”*, dio Josunek.

Elkarrekin Jolastuz tailerraren bitartez, senideen arteko lotura arinago eta alaiagoa sustatu nahi du begiraleak. Horixe bera da Jose Luis, bertako aita bati, gehien gustatzen zaiona, *“oso pozik nago, guztiok elkarrekin egotea- gurasoak eta haurrak- oso garrantzitsua da, gure artean oso giro ona sortzen baita”*.

Umeen partetik, harridura handia sortzen da aita-amak jolasten ikustean. Gurasoei dagokienez, oso pozik agertzen dira primeran pasatzen dutelako eta kantak ikasten dituztelako. Hain zuzen ere, kantak gogoratzeko ardura beraiena da.

“Haur kantak eta jolasak umeen sozializaziorako tresnak izan dira beti, eta emakumezkoak izan dira igorpen lana egin dutenak. Tailerrean lan hori gizon eta emakumezkoek elkarren artean egiten dute.”, azpimarratzen digu Josunek.

Taldean guztien parte hartzea nahi ta nahiezkoa da. Hau dela eta, elkarrekin dantzatu eta jolastu egiten dute. Hala ere, *“heldu batek ezin du umea denbora osoan bideratu, horregaitik, nohizbehinka, klasea gelditu egiten da umeek nahi dutena egin dezaten”*, azaltzen digu begiraleak. Honela, gelako bazterretan kromo kutxak, sokak, ipuinak eta plastiko botilak barreaiturik daude espazio ezberdinak osatuz.

Ipuinetarako parada ere badago, argiak itzali eta kandelen argiaren inguruan haurrak eta gurasoak ipuina entzuteko jezartzen dira. Arreta aurpegiak ikusten dira Josune kontu kontari ari den bitartean. Ume batzuk ipuina ezagutzen dutenez gero, beraien ekarpenak egiten dituzte ere.

Istorioarekin hasi baino lehen, *“Alizia herrialde miresgarrian”* bideoa zozketatu da, Kai,gaur lehenengoz etorri den neskatoari egokitu zaio, *“baina, bideo hori banuen eta beste umetxo bati oparitu diot”*, kontatzen du pozik.

Hizkuntzari dagokionez, aktibitateak euskeraz zein gaztelaniaz egiten dira, haurren errealitatea elebiduna baita, guraso erdaldunak egon badaude, baina euskal kantutegia entzun eta ikasi egiten dute baita ere, gainera, askotan jolas kantak ezer esan nahi ez duten hitz jokuak dira.

Elkarrekin jolastuz oso arrakastatsua suertatu da, hasiera batetik itxaron zerrenda luze bat osatu zen, eta Basaurin, datorren ikasturtean esperientzi hau errepikatu egingo dute. Aurtengo arrakasta ikusita, Josune Muñozek Bilbon ere tailerra martxan jartzeko asmoa dauka, *“guzti hau, berreskuratze lan majo baten hasiera baino ez izatea espero dut”*. Plazak berriro bete arte.

Josune Muñoz, Bilboko euskal filologoa, idazle eta literatura ikertzailea dugu. Berarengana jotzen dugu eskola bukatutakoan, erdi izerdiz, baina pozik dago.

Zein da *Elkarrekin jolastuz* tailerraren helburu nagusia?

Ahozko literatura olgatzeko berreskuratzea. Guk, txikitan, kantatuz jolasten genuen, eta jolas kanta horietariko asko galtzen ari dira. Honekin batera, plazak ere berreskuratu egin behar dira jolas espazioak bihurtzeko.

Bestalde, badago beste helburu garrantzitsu bat, ondo pasatzea, jakina!.

Nolako gaiak lantzen dira klasean?

Umeen jolasak eta kantak lantzen ditugu, seaska kantak, soka kantak, zozketa kantak, eta honelakoak ikasten ditugu. Ipuinei, ere, garrantzi handia ematen zaie, eta bertan kontatzen ditugu. Bestaldetik, idatzitako literaturarako lehenengo urratsak lantzen ditugu.

Noizbehinka, haurrak beren kabuz jolasten ari diren bitartean, gai ezberdinei buruzko monografikoak egiten ditugu, adibidez, telebista eta bideoa zelan ondo erabili, nola aukeratu haurrarentzako ipuin on eta egoki bat, entzunezko materiala ezagutarazi, etab.

Zeintzuk dira berreskuratze lan honetarako informazio iturriak?

Tailer hau urte luzeetan egindako lan baten emaitza da; emakume eta literatura ikertzean ahazko literaturarekin dagoen lotura hestua ikusi dut, emakumezkoengan ahazko literaturak garrantzi handia izan baitu. Nik literatura irakasten dut, baina, ez ohiko eran, eta kanta batzuk martxan jarri ditudan tailerretako emakumeengandik jaso ditut.

Dena dela, kanta gehienak txikitatik ezagutzen ditut, haurtzaroa Errioxa eta Euskal Herria artean eman nuen, eta horrek, bai hango eta bai hemengo kantak ezagutzeko aukera eman zidan. Kanta horiek maite nituen, eta ez zaizkit ahaztu.

Bete egin al dira *Elkarrekin Jolastuz* tailerraren aurreko igurikapenak?

Gaizto egin dira, guztiz. Martxan jarri dudana tailer arrakastatsua izan da, behar handia zegoela jakinda ere, ez nuen horrelakorik espero. Jendea oso pozik dago eskola bakoitzean gozatu egiten duelako. Gainera, hamabostean behin izatean ez da behar bezala sentitzen, eta jendea gogoz dator.

ZOZKETATZEKO KANTAK

-Don-don belerón

belerongo herrixan
zazpi gizon dantzan
zu moskorra
ni mozkorra
nahi dabena
kanpora!
(Ermua)

_ Dona, dona , katona

sutondoan aitona
lepotik behera
kutuna
kanpora neska-mutil
tuntuna.